

EGUNKARIA ren pregoia

Bilbotar eta euskaldunok zorionak eta ongioterriak.


Zorionak Bilboko emakume eta gizonok, hormigoi eta burdinezko hiri honetan bizitzea posible dela, jolas egitea zilegi dela eta maitatu ere egin daitekeela erakusten duten Bilboko Jaietarako heldu garrelako.

Zorionak, bizkaitar guztiok, Gizpuzkoa eta Arabako mugetatik honaino arteko urak biltzen dituen Ibai Zabalen honen bazterrean heldu zaretelako. Ongi etorriak Arratiatik bezala itsas bazterreko kai eta portuetatik, ibarretatik bezala mendietatik, Aulestiatik, Enkarterrietatik edo Sestaoko burdinen artean honaino heldu zaretan guztiok.

Zorionak eta ongi etorriak Bianatik, edo Atharratzetik, edo Tolosatik heldu zaretan euskaldunok. Eskuzabalik hartzen zaituzte Euskal Herriko hiriburu faktikoa den honek, eta aurrean ditugun zortzi egunetan barrena ogetan lasai egiteko eskatzen dizue, Zazpikaleetatik Deustuara, Abandotik Begoñara, Iralatik Artxandara.

Ohere handia da EUSKALDUNON EGUNKARIA goizero irteteko ahaleginean gabiltzanontzat, egunero bertan lan egiten dugunontzat, eta amets hau errealtate bihurtzeko laguntzen duten kolaboratzaile eta bultzatzaile guztientzat; ohorea da, diot, Bilboko Aste Nagusiari hasiera ematea.

Ohere hau pozgarria da ez bakarrik EGUNKARIArentzat. Konpartsek eta Bilboko Jaietako Batzordeak euskal komunikabideetan lan egiten dugun guztioi eman diguten poza da. Ez da gehiagi esatea, behin eta berriro euskaraz bizitzen saiatu eta herri honek bere hizkuntza nazionalean funtziona dezan lan egiten dugunok, nolabait bazterturik sentitzen garela,



JOSE SIMAL

Pello Zubiria
EGUNKARIAko zuzendaria pregoia irakurri aurretik.

pizti arraroak bagina bezala. Urtetan poluzioa eta zikineriagatik Nerbioiko uretatik kanpo bizi izan den izokiak bueltatzea erabaki eta burua uretatik ateratzean, gaur hemen aterako dugun zalaparta ikusita sentituko litzatekeen moduan.

Agur bero bat, beraz, euskal astekari, irrati, telebista, eta era guztietako argitalpenetan lan egiten duten guztien izenean. Eta agurrarekin bat, euskaraz bizi garenon mundura hurbiltzeko gonbidapena. Gure hizkuntzak askoz gehiago hurbiltzen gaitu geure erroetara, bai; baina, era berean, geurea bezain baserritarra ez omen den baina Pirinioetatik harantzago ikusten ez duen kulturatik askatzen ditu.

Ordu hauetan biharko EGUNKARIA egiten ari diren gure lankideek laster

prestakuko dute lehen orria. Hona zer dion biharko EGUNKARIAren lehen orriak, zuei eskusiban azalduko dizuet:

— Langabezi kopurua erdira jaitsi da azken urte honetan.

— Euskal Herriko 7 probintziek abots bakarra eta osoa izango dute irailaren 1etik bai Europako Elkartean eta bai Nazio Batuen Erakundearen ere.

— Astebete barru inauguratuko den depuradorearekin, IbaiZabala garbitzeko plangintza burutuko da eta jadanik azaltzen hasi diren arrainak laster ugarituko dira.

— Euskal kulturako lankideak ditugun Xabier Lekuona eta Juan Jose Petrikorena atzo irten ziren kalera, gaur irtengo dira Imanol Aranburu eta Juantxo García, eta hamabost egunetako epean euskal preso guztiak kaleran izanen dira.

— Euskarazko ekintzak dira nagusi aurtengo Bilboko jaietan.

Adiskideok: ametsetak 1. orri bat kontatu dizuet. Baina biharko egunkaria, dakizuen bezala, ez da lehen orri horrekin atera. Gaur goizean denok dakizkigun berri txarrak entzun ondoren nik ez daukat zer esanik Txiritaren aspaldiko bertso hau gogoratzea baino:

Gau eta egun antzika dago / gure Kantauri ederra / alde batera nahia-go nuke / ez banintz emengotarra / mundu guztiak aditutzen du / euskaldunaren negarra / enpeñatzia ez bada libre / alferrik dugu indarra / aude txoriak gari tartian / gosiak egon biarra.

Joango da Mari Jaia eta joate horren ostean daukagu gure amets zaharrak datorren urterako egia bihurtzen ahalegintzeko aukera. Bilbo eta Euskal Herria bihotzez maite ditugu eta.

Gora Bilbo!
Gora Bizkaia!
Gora Euskadi!



Hau Pittu Hau konpartsako ordezkaria da txupineroa.

JOSE SIMAL

Miren Barrutia: «Jaiak euskaraz bizitzea eskatuko nioke jendeari»

M. ARREGI / BILBO

Txupina inoiz bota ez duten konpartsen artean zozketa egin ondoren, Hau Pittu Hau konpartsari tokatu zitzaion aurtengoan Bilboko Aste Nagusiari hasiera ematea. Miren Barrutia, 1991ko Bilboko jaietako txupineroa piztu zuen atzo Arriagako bakoian Aste Nagusiko metxa. Egunero goizeko zazpietan gauza bera egingo du, badaezpada norbait konturatu ez bada ere, Bilbo jaietan dagoela jakin dezan.

EGUNKARIA.— Nola moldatuko zara parranda egin, goizero zazpietan txupina bota eta eguneroko konpromezu guztiak betetzeko?

BARRUTIA.— Ba oraindik ez dakit zelan egingo dudana. Momentuan momentukoa erabakiko dudala uste dut. Agian egun baten gaupasa egin dezaket, baina hurrengo eguna izugarria izan daiteke. Ez dakit, ez dakit, ikusiko dugu.

EGUNKARIA.— Nola hartu dute Bilboko komunikabideek zuk elkarrizketak euskaraz bakarrik egitea?

BARRUTIA.— Beno, denetarik egon da. Zenbait gauza nahiago ditut ahaztea. Gure konpartsaren Hau Pittu Hau-k euskara hutsean funtzionatzen du eta nik hori isladatu nahi izan dut. Egun hauetan ikusi dudana guztiatik,

jende askok ez dauka borondaterik euskarazko ekintzak bultzatu edo behintzat hauei kasu egiteko. Nik elkarrizketak euskaraz egiten ditut, baina beraiek gero nahi duten moduan eman dezakete informazioa. Baina esan beharra dago, normalean euskara erabiltzen ez duten komunikabide batzuek, kasu honetan egin dutela eta oso positiboa dela uste dut. Behintzat, euskararen arazoa berriro ere mahairatzea lortu dugu.

EGUNKARIA.— Zelan ikusten duzu euskararen presentzia aurtengo Aste Nagusiko egitarauan?

BARRUTIA.— Egitarauan Bilbon euskarazko ekintzekin gertatzen dena isladatzen da, ia beti testimonio hutsean gelditzen dira, sinbolikoak dira. Guk, konpartsatik, ahal dugun neurrian euskararen benetako erabilera bultzatu nahi dugu jaietan ere. Bestalde, oso berezita daude euskaraz eta erdaraz egiten diren ekintzak. Pasa den astean jaien aurretiko ekintza batean egon nintzen eta euskaraz esan zen bakarra «Aste Nagusia» hitzak izan ziren. Bertsolari eta herri kirolez gain, gainontzeko ekitaldietan euskararen presentzia «normalizatuaren» falta oso nabaria da egitarauan. Hau aldatzen saiatu beharko ginatke.

EGUNKARIA.— Ez omen zara zezzenketetara joango...

BARRUTIA.— Ez. Batez ere erabaki pertsonala izan dela argitu nahi dut. Ez dut uste horrelako ikuskizuna agoantzeko gauza naizenik. Uleritzen ez dudana zerbait da, ez da nire buruan sartzen halakorik egin daitekeenik.

EGUNKARIA.— Agian jaiak bukatzeko gogoia izango duzu...

BARRUTIA.— Ez dakit. Ez dakit txarrena pasatu den hala etortzearen dagoen. Egin behar guztiak bete, lagunekin egon eta ondo pasa, agian gehiagi. Bai, bukatzeko gogoia daukat benetan. Bitartean ondo pasatzen saiatuko naiz. Jendearekin ere hori eskatuko nioke, ondo ibiltzea eta jaiak euskaraz bizitzea.



Edozein ezbehenetarako prest



Behin bazen **ZUREZKO JOSTAILU**
— Errege bat — esango dute nire irakurle gaztetxoek.
— Ez, gazteok, oker zabiltzate.
Behin bazen egur pusketa bat. **Pinocchio**

1883 Carlo Collodi

SOMERA, 6

BILBO ZAHARRA



Bilbo Zaharra

EUSKARA KLASEAK

Correo, 8 Tfnoa. 415 82 92 - 48005 BILBO

FESTETAN ON PASA !

J.M. Zabala
Euskaltegia



elkarlan

Jaietan ere Euskarari Ekin.

Fordoniz, 22 - 2.
Tfnoa.: 422 13 88

48012 - BILBO